0 AURREKARIAK

BiscayTIK Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua da, nazioarte mailan izaera berritzaile eta aitzindari nabarmena duena, helburutzat honako hauek dituelarik: komunikazio kanal berri baten bidez, Internet bidez, Administrazioa herritarrengana hurbilaraztea bien arteko elkarrekintza erraztuz; horrez gain, Bizkaiko Udaletako barne-kudeaketa barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko tresna informatikoak homogeneizatzea; eta Bizkaia informazio teknologietan eta Udal Administrazioaren ezagupenean nazioarteko erreferentzia bilakatzea.

Helburu hau betetzeko, proiektuak hiru ardatz ditu,

- Herritarrentzako posta elektroniko zerbitzua.
- Udalerrientzat programa informatikoak eta herritar bideratzea duen web ataria.
- Nazioarteko erreferentziadun Teknologia Zentro bat sortzea.

Biscaytik azaldutako egoera konpontzeko asmoz, Udal Administrazioen kide teknologiko gisa arituko da, eta Bizkaiko udal eta mankomunitate guztiei behar informatiko gehienak asetzen dituen Udal Administrazio Kudeatzailea eskaintzen die.

Esparru horretan, 39/2015 Legearen 17. artikuluak ezartzen duenez, «Administrazio bakoitzak bukatutako prozedurei dagozkien dokumentu elektronikoen Artxibo Elektroniko bakar bat mantendu beharko du», eta, gainera, honako hau adierazten du: «Dokumentu elektronikoak dokumentuaren egiazkotasuna, osotasuna eta kontser- bazioa ahalbidetzen dituen formatu batean kontserbatu beharko dira. Horiez gain, dokumentua kontsultatzea ere ahalbidetu beharko du, dokumentua egin zenetik igarotako denbora alde batera utzita».

1 XEDEA

Lehiaketa honen helburua Arges softwarearen lizentzien hornidura kontratatzea da.

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Udal Administrazio Kudeatzailea (UAK) Tokiko Administrazioaren barne kudeaketarako erabiltzen den tresna informatikoa da, Izapidetza telematikora pasatzeko oinarria. Udal Administrazio Kudeatzailea eskaintzen die. Honako hauek dira Udal Kudeatzaileak barne hartzen dituen udal sailak:

- Sarrera eta Irteera Erregistroa
- Biztanleen errolda
- Espedienteen kudeaketa
- Kontabilitatea
- Aurrekontuak
- Zergen kudeaketa eta diru-bilketa
- Giza baliabideak
- Nominak

- Gizarte-zerbitzuak
- …

Moduluak erabat integratuta daudenez, kudeaketa eraginkorra gauzatzeko aukera eskaintzen dute. Horrela, ez dago sistemaren zati batean soilik existitzen diren daturik, behar ez diren erredundantziak sahiesten dira, eta informazioa ez da ulergaitz bihurtzen.

Horrela, Biscaytik erakundeak Artxibo Kudeaketarako (ARQD) soluzio bat du. Espediente eta dokumentu elektronikoak behin betiko artxibatzeko soluzioa da, hau da, Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalera (ENE) egokiturik dauden espediente elektronikoen behin betiko artxiboa kudeatzeko eta gordetzeko sistema bat; espediente horiek amaiturik dauden prozedurei dagozkien espedienteak dira, eta, gainera, arlo horretan aplikatzekoa den legeria betetzen dutenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 17. artikuluan garatzen den bezala. Artxiboa kudeatzeko moduluak artxibo bakarreko ARGES softwarearen erakunde anitzeko instantzia bat du, udal administrazio-kudeatzailearekin (GAM), dokumentu-kudeatzailearekin (DMS) eta Biscaytiken dagoen Sinadura Sistema Horizontalarekin (SHF) integraturik dagoena.

BiscayTIK Fundazioaren proiektuko ARQD moduluaren funtzionamendurako beharrezkoak diren Arges lizentziak hornitu beharko ditu enpresa lizitatzaileak.

Biscaytiken administrazio elektronikoko soluzioa osatzen duten gainerako osagaiekin zerikusia duten proiektuaren irismen-moduluak honako hauek dira:

2.1.1 Artxiboaren kudeaketa

Biscaytik artxibo bakarra aplikatzeak artxiboko dokumentazioa arin kudeatzeko aukera ematen du. Aldakortasun handia du, sistemako pertsonek informazioa bilatzen eta berreskuratzen laguntzen du eta dokumentu elektronikoak gordetzeko aukera ematen du.

Artxiboaren kudeaketak aukera hauek ematen ditu:

- Dokumentuak errazago aurkitu eta eskuratzeko.
- Artxibatutako dokumentazioaren kontrola bermatzea, bai eta dokumentuen kontsulta, mailegu eta itzulketen kontrola ere.
- Informazioa modu eraginkorrean banatzea.
- Dokumentazioa transferitzeko eta garbitzeko prozesuak automatizatzea eta kontrolatzea.
- Dokumentu informatikoak gordelekuarekin integratzea eta erakundearen kudeaketan erabiltzen diren beste sistema informatikoekin integratzea.
- Hainbat kudeaketa-txosten eta -estatistika lortzea.

Artxibo kudeatzeko aplikazioa elebiduna da (euskaraz/gaztelaniaz).

Hauek dira modulu nagusiak:

2.1.1.1 Administrazioko moduluak

- Konfigurazioa eta administrazioa
- Antolamendu-tresnak
  - Sailkapen-taula
  - Kontserbatzeko egutegia

- Espazioen kudeaketa
- ISSAR(CPF) produktuak /Historikoak

- Sartzeko baimenak
- Deskribatzaileak:
  - Onomastikoak – ISSAR(CPF)
  - Gaiak (EUROVOC tesauro propio)
  - Tokiak

2.1.1.2 Modulu funtzionalak

- Sarrera eta deskribapena – ISAD(G)
- Funtsak kontsultatzea (sinplea, aurreratua eta testu librea)
- Transferentzien kudeaketa
- Garbiketen kudeaketa
- Maileguak eta kontsultak
- Espazioak kudeatzea
- Dokumentu eleanitzen kudeaketa
- Dokumentu elektronikoak zaindu eta gordetzea
- Txostenak, etiketak eta estatistikak.

Sistemak artxiboen funtsen deskribapena, kontsulta eta sarbidea kudeatzen ditu sistemak, eta beharrezko euskarri teknologikoa ematen die artxiboak kudeatzeko prozesu eta atazei, ikuspegi integral batetik, honako hauek kontuan hartuta:

- Dokumentazioaren tratamendu globala eta uniformea, hasieratik, administrazio unitate ekoizleetatik.
- Artxiboko dokumentu elektronikoak sartzea.
- Espedienteak kudeatzeko aplikazio informatikoak.
- Sistemaren artxibo zentroetan dokumentazioaren artxiboko tratamendua koordinatu eta arautzea.
- Artxiboekin lotura duten nazioarteko arauak eta eskakizunak sartzea:
  - ISAD (G)
  - ISAAR (CPF)
  - EAD eta EAC
  - MoReq (Artxiboko dokumentu elektronikoak kudeatzeko errekerimenduen eredua)
  - UNE ISO 15489

Sistemak ISAD (g) arauan ezarritako maila anitzeko arauak aplikatzen ditu; izan ere, dokumentazioaren maila anitzeko egitura eta deskribapenean oinarritzen da, hondoko elementutik abiatuta eta espediente, dokumentu unitate (dokumentua) eta lokalizazio unitate (instalazioa) mailetaraino jaitsiz.

Sistemak maila anitzeko egitura hori parametrizatzeko aukera ematen du, erakundearen beharren arabera.

Ez da beharrezkoa maila bakoitzean guztientzat komuna den informazioa betetzea, deskribatutako goragoko maila hierarkikotik jasotzen baita. Sistemak aukera ematen du "oinordetzan jasotako informazio" hori aldatzeko eta/edo garatzeko, aztergai den dokumentu unitateari dagozkion datu espezifikoak sartuta.

Sistema kudeaketa arau jakin batzuen pean sortu da, zeinak kontrolatzen baitute deskribapena, deskribatutako goragoko maila hierarkikoa kontuan hartuta.

Datuen egiturak orobat jarraitzen die Artxiboen Deskribapenari buruzko Nazioarteko Arau Orokorrari (ISAD – G-) eta arau horrek aurreikusitako arloei:

- Identifikazio arloa (Identitatearen Aipamena)
- Testuinguru arloa
- Eduki eta Egitura arloa (oharren arloa barne hartzen du)
- Baldintzak eta Sarbidea arloa (eta erabilerarena)
- Dokumentazio Atxikia arloa (lotura duten materialen arloa)
- Deskribapenaren Kontrola arloa

Sistemak honako arlo hauek biltzen ditu, gainera:

- Signatura edo signaturak
- Dokumentu elektronikoak (Erregistro deskribatzaileari atxikitako dokumentazio elektronikoa).

3 BALDINTZA BEREZIAK

Enpresa lizitatzaileek ezin izango dute hizkera sexistarik erabili, proposamenak prestatu eta aurkezteko orduan. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak ezin izango du hizkera sexistarik erabili, idatziz edo modu digitalean sortutako behin betiko edozein dokumentutan; era berean, datuak sexuaren arabera banandu beharko ditu, pertsonei buruz sortzen diren estatistika guztietan. Eta hori, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 2.3 artikuluak dioena betez, non errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten baitira.

3.1 Lizentziak mantentzea eta eguneratzea.

Esleipendunak kalitatez, zorroztasunez eta eraginkortasunez gauzatuko du zerbitzua, eta berau zuzenean edo zeharka erregulatzen duten indarreko legezko eta arauzko xedapen, arau eta zehaztapen guztiak bete beharko ditu.

Esleipendunak softwarearen eguneratzeen hornidura bermatu beharko du, baita mantentze- eta eguneratze-lan hauek egiten direla ziurtatu ere.

- Mantentze-lan prebentiboak: sistemak eraginkortasun handienarekin funtzionatzen duela ziurtatzeko dira, eta derrigorrezko edo ustekabeko geldialdiak saihesteko.

- Mantentze-lan zuzentzaileak: antzemandako akatsak berehala eta behin betiko konpontzeko dira. Emandako akatsak konpontzen dituzten bertsio berriak edo aplikazioaren berrikuspenak aurkeztuko dira. Horretarako liberatutako bertsioek/berrikuspenek dokumentazio zehatza izango dute, ebatzitako akatsen zerrendarekin.

- Egokitze-lanen mantentze-lanak: aplikazioa azken erabiltzailearen asmoetara etengabe egokitzera bideratuta daude. Hobetzeko iradokizunak edo eskaerak (ez legezkoak) dituzten bertsio edo berrikuspen berriak jarriko ditu BiscayTIK Fundazioaren eskura. Horretarako liberatutako bertsioek/berrikuspenek dokumentazio zehatza izango dute, ezarritako funtzionaltasunen xehetasunekin.

- Mantentze-lan ebolutiboak: sistema ingurune oso lurrunkor eta aldakor batera egokitzera bideratuta daude. Lege-inguruneko aldaketetara egokitzeko bertsio/berrikuspen berriak emango dira. Bertsioak/berrikuspenak erabat operatibo egongo dira legeriak hala eskatzen duenean.

- Euskarri-lanak

3.2 Genero ikuspegia

Dagozkien proposamenak egin eta aurkezteko, enpresa lizitatzaileek hizkera ez sexista erabili beharko dute. Halaber, enpresa esleipendunak, kontratua indarrean den bitartean, hizkera ez sexista erabili beharko du behin betiko dokumentu guztietan, izan idatziak edo digitalak, eta, pertsonei dagokien edozein estatistika egiteko, datuak sexuen arabera banandu beharko ditu. Hori guztia Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluari jarraikiz, zeinean errespetatu beharreko printzipio orokorrak zehazten baitira.

Enpresa esleipendunak kontratuaren helburu den prestazioa egin izanaren azken justifikazioan, hala badagokio, txosten bat aurkeztu beharko du, kontratazioan generoak izan duen eraginari buruz, adierazleak eta datuak sexuen arabera banatuta, hala erabiltzaileenak nola onuradunenak, edo zerbitzua ematen duten langileenak, aplikatutako berdintasun-neurriak ebaluatzeko aukera izateko.

4 ARGIBIDEAK

Edozein kontsulta edo argibiderako, Biscaytik Fundazioak ondorengo helbidea jartzen du enpresa eskaintzaileen eskura:

eskaintzak@biscaytik.eus

Izenpetua: Kontratazio organoa

I. ERANSKINA

KONTRATUETAKO DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA *2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) ETA DATUEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEARI BURUZKO 3/2018 DBLO*
Biscaytik **Tratamendu-eragile** eta harremanetarako
Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailea. Zugatzarte 32, Getxo- 48930- Bizkaia
Tratamenduaren eragilea
Pertsona kontratista izango da.
Tratamenduaren arduraduna
Biscaytik Fundazioaren zerbitzua jasotzen duten toki-erakundeak. Informazio hori eskuragarri dago Biscaytik Fundazioak tratamenduaren arduradun gisa egiten duen jardueran argitaratutako Tratamendu-jardueren Erregistroan.
Datuen babeserako delegatua
Tratamenduaren arduradun diren toki-erakunde bakoitzean eginkizun hori betetzen duten pertsonak. . Informazio hori eskuragarri dago Biscaytik Fundazioak tratamenduaren arduradun gisa egiten duen jardueran argitaratutako Tratamendu-jardueren Erregistroan.
Pertsona interesdunaren eskubideak
Interesatuak/eraginpekoak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita horiek tratatzeko mugak jartzeko edo horren aurka agertzeko ere, eta horretarako: Tratamenduaren arduradun diren toki-erakundeen helbideetara, fisikoak eta elektronikoak. Informazio hori eskuragarri dago Biscaytik Fundazioak tratamenduaren arduradun gisa egiten duen jardueran argitaratutako Tratamendu-jardueren Erregistroan. Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko.
Tratamenduaren helburua
Helburua da modulu hauetako datuen tratamenduaren kudeaketa: • Arges software-lizentziak hornitzeko kontratua.
Datuen tratamenduaren jarduerak
Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu:

Datuak atzematea	x

Datuak grabatzea	x
Datuak egituratzea	x
Datuak aldatzea	x
Interesdunekin harremanetan jartzea	x
Datuak biltegiratzea	x
Datuak ateratzea (berreskuratzea)	x
Datuak kontsultatzea	x
Datuak lagatzea / zabaltzea	x
Datuak interkonektatzea (gurutzatzea)	x
Datuak erkatzea (egiaztatzea)	x
Datuak suntsitzea	
Tratamenduaren eragilearen informazio-sistemetan datuak kontserbatzea	x
Datuen aldi baterako kopiak egitea	x
Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuen berreskuratzea	x
Beste batzuk (*zehaztu*)	

Tratamenduaren zilegitasuna

1. DBEOren 28. art.
2. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoaren kontratuei buruzkoa.
3. Pertsona kontratistarekin formalizatu beharreko kontratua.

Datu pertsonalen kategoriak

IDENTIFIKAZIO-DATUAK:	
NAN / IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala	x

Izen-abizenak	x
Posta-helbidea	x
Telefonoa	x
Sinadura	x
Nazionalitatea	x
Jaioteguna	x
Jaioterria	x
Adina	x
Egoera zibila	x
Helbide elektronikoa	x
Sexua	x
Gizarte Segurantzako zenbakia	x
Irudia (argazkiak edo bideoak)	
Soinuak (audio-grabaketak)	
Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instragram profilak, besteak beste)	
Seme-alaba kopurua	x
Ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua, taila, besteak beste)	
Beste batzuk (zehaztu)	
BESTE DATU MOTA BATZUK	
Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste)	x
Lanbide-esperientzia -edo -historia	x
Lanbidea	x
Lanpostua edo lanbide-kategoria	x
Lizentziak edo baimenak	x
Elkarte, klub edo bestelakoetan kide izatea	x
Jabetza edo ondasunak	x
Ekonomikoak, finantzarioak edo aseguruenak (banku-datuak, kontu korrontea, txartel-zenbakia, zergei, soldatei, subsidioei buruzko datuak, besteak beste)	x
Informazio komertzialerako datuak (jarduerak, negozioak, besteak beste)	x
Transakzioei buruzko datuak (interesdunak eskainitako ondasun edo zerbitzuak, interesdunak jasotako ondasun edo zerbitzuak, besteak beste)	x

Administrazioko arau-hausteei buruzko datuak	x
Zigor arau-hausteei buruzko datuak	
Beste batzuk (zehaztu)	
DATUEN KATEGORIA BEREZIAK (DBEOren 9. art)	
Etnia- edo arraza-jatorria	
Iritzi politikoak	
Sinesmen erlijioso edo filosofikoak	
Sindikatu-afiliazioa	
Datu genetikoak	
Pertsona fisiko bat adiera bakarrean identifikatzera bideratutako datu biometrikoak	
Osasunari buruzko datuak	
Sexu-bizitzari edo sexu-joerei buruzko datuak	

Pertsona interesdunen kategorien deskribapena

Herritarrak	x
Adingabeak (14 urte, DBEDBLOren 7. art)	x
65 urtetik gorako pertsonak	x
Egoiliarrak	x
Bezeroak	x
Hornitzaileak	x
Atxikitako pertsonak edo kideak	x
Jabeak edo errentariak	x
Ikasleak	x
Legezko ordezkariak	x
Harremanetarako pertsonak	x
Eskatzaileak	x
Onuradunak	x
Langileak	x
Enplegu-eskatzaileak	x
Kargu publikoa duten pertsonak	x

Datuen jatorria

Trataturiko datu pertsonalak hemendik datoz:

Interesdunak edo beren ordezkariak.	x
Administrazio publikoak Erregistroen interkonexio-sistemari atxikitako edozein erankunde publikok.	x
Erregistro publikoak Erregistroen interkonexio-sistemari atxikitako edozein erregistro publiko.	x
Sektore publikoko beste erakunde batzuk Erregistroen interkonexio-sistemari atxikitako sektore publikoko edozein erakunde.	x
Beste batzuk (Zehaztu):	x

Datuen hartzaileak

Datuak kontserbatzeko epea

Kontratuaren egikaritzea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar kontserbatuko da, bere berme-epean zehar hedatu eta legezko edo kontratuzko betebeharrak bete.

Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea

Tratamendua amaitzen denean, pertsona kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

Datuak suntsitzea, prestazioa eman ondoren. Suntsitu ostean, pertsona kontratistak suntsitu egin dituela ziurtatu beharko du idatziz eta Biscaytik Fundazioari eman beharko dio ziurtagiria. Edozelan ere, pertsona kontratistak kopia bat gorde dezake, behar bezala blokeatutako datuekin, prestazioaren betearazpenetik erantzukizunak sortu daitezkeen bitartean.

Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra

Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren arabera.